

### **ATARRABIAKO U.K.E.-tako HELBURU OROKORRAK:**

- ✓ 15 urte baino gutxiagoko Atarrabiako eta hitzarmena duten udaleko umeei aktibitate fisiko eta kirolean parte hartzeko aukera eman; sexua, gaitasun fisikoa, egoera ekonomikoa eta abar diskriminaziorik gabe.
- ✓ Aktibitate fisiko eta kirolean parte hartzea sustatu, umeen osasuna eta ikaskuntza integralari bideratuak, beti ere, segurtasun baldintzetan, kirol zein afektibo-sozial ikuspegitik eta momentu oro haien garapen biologiko eta heldutasun maila kontutan harturik.
- ✓ Umeendako eskola eta diziplina aukera zabala eskaini, kirol mota ezberdinen artean hautatu eta aldatzeko aukera proposatuz eta aldi berean, Atarrabiako kirol federatu lokalaren oinarri izango da, bere jarraitasuna ziurtatu ahal izateko.
- ✓ Baloreetan heziz, kirolaren bitartez, berdintasuna, laguntasuna, gizarteratzea, errespetua, hobetzeko grina eta joko garbia transmitituz eta suspertuz. Erlazio sozial eta pertsonalak indartu.
- ✓ Kirolaren bitartez, etikoak, hezkuntzazkoak, higienikoak eta osasuntsuak diren ohiturak sortu eta garatu, aurrerantzean modu autonomikoan egin ahal izateko eta pertsonaren ongizate fisiko, mental eta soziala bilatuz. Osasunarekiko kaltegarriak diren ohiturekiko jarrera kritikoa sustatu.
- ✓ Kirol ezberdinen arauak, materialak, teknikak eta taktikak ezagutu.
- ✓ Espezializazio goiztiarretik ihes egin. Formazioa, dibertsioa eta parte hartzea, kirol emaitzen lorpenaren aurrean jarri.
- ✓ Materiala eta instalazioak zaintzeko arduratzean eragin, puntualitatez eta erregulartasunez kirol praktikara joaten.
- ✓ Ingurumenaren ardura eta errespetua.